



abagune okasioa	«Halako abaguneetarako geratzen zaion lagun bakarrari. Ari, ari, ari.»	(21)
abaildurik guztiz nekaturik	«Igandea da gaur. Baina berdin dio horrek abaildurik dagoen Damiani.»	(131)
afixa kartela, posterra	«Hormetako afixa handi batzuetan dituzte begiradak ezarriak.»	(49)
ahitu agortu, amaitu	«Ezin duk egin beste inora, nahita ere. Hondarretan ahitzera hoa.»	(14)
akituta indarra galduta	«Nik ez diat honela ibiltzeko balio. Akituta nagok.»	(81)
anartean oraindik	«Magnetoskopioan berriro irudia jartzeko eskatu zion Aldaba doktoreari, ahal bezala eta anartean painelua eskutik gorde gabe.»	(12)
apeta guraria	«Zergatik ez, bada. Hilda hago Damian, hilda. Egin ezak apeta .»	(28)
argimutil argi euskarria	«...eta, klik, amatatu egin zuen gela argiztatzeko argimutil bakarra.»	(135)
arian-arian pixkanaka-pixkanaka	«...Luperi ere gustatu zaio eta arian-arian , bigarren bat eskatu behar izan dute mahaitik jaiki baino lehenago.»	(73)
arrapostu erantzun	«Bai Jaione, bai Jaione, zuk nahi bezala Jaione, atera zitzaion Damiani arrapostu bezala.»	(23)
artatu zaindu	«...ez dakit zer gertatzen den gaur telefonoarekin, esan dio Lupek Damiani, atarian artatzera joan zaionean.»	(71)
ataka estualdia, kinka larria	«Orain kontua egiazkoa da, ordea. Damianek ez daki nola irten atakatik .»	(44)
atalase sarrerako atea	«Damian atalasean geratu zen, paketetxoa eskuetan, Véroniqueren autoa makal eta lizarren artetik ezkutatu artean.»	(134)
aurki laster, segituan	« Aurki naiz neu ere hor, pentsatu du azkenez.»	(41)
aztoramen asaldura, ezinegona	«Damianek kafea eta Dexedrinaren nahasketari egotzi dio, azkenean, hainbeste pentsamendu ganoragabekoren aztoramena .»	(48)
babo papaoa, kokoloa	«Batzuetan baboa dirudizu, Arruti. Zergatik ez didazu lehenago esan.»	(142)
bardako joan den gauekoa	«Ez da bardako ametsa izan.»	(34)
bazka animalien janaria	«Animaliak lurra jo orduko, hantxe dira. Istant berean. Bazkarako prest.»	(56)
bejondeizula zorte on!	«Ikusi ere ez nauzula egin. Zure barnean bizi den ume izu horren argiak itsututa. Bejondeizula , beraz.»	(158)
berariaz nahita, apropos	«Nonbaitetik berari tiroka ari direla dirudi. Berariaz .»	(17)
birundan inguruan, biran	«Mundu guztia baitabil beti gizonaren inguruan. Gizonaren epizentroan birundan jiraka.»	(162)
bizkarroi parasittoa	«Han bakarrik sortzen den onddo txiki baten bizkarroi izanez bizi da <i>Phophila bahii</i> eltxoa.»	(51)
burrunba zarata handia	«Eulien artera sartu dira hirurak sotoko geletako batean (...) Zoratu egingo direla burrunbarekin .»	(115)
deblauki bat-batean	«...burutik behera janzteko erlezainaren kaskoa luzatu dio deblauki .»	(62)
dilindan zintzilik bezala	«Lorategiko anemona artera erori da dilindan , tximeleta lez...»	(120)



diosal agur	«Jose Ramon Izpizua motorrak martxan dituen ontzi baten txopatik egin dio diosal urrutitik...»	(77)
dirdaitsu distiratsua	«...gorderik behar luketen aizto eta tresna dirdaitsu guztiak agerian...»	(59)
doi eskas, juxtu	«Damianen autoa doan lekutik bost metro doitara edo...»	(17)
doi-doi juxtu-juxtu	«Doi-doi dagoela bizirik pentsatu du orduan, doi-doi dagoela bizirik, hiltzen jarraitzeko.»	(103)
endelegatu konprenitu, ulertu, aditu	«Zer du apartekorik honek, galdetu dio orduan Urrutikoetxeak, Arrutiren aztoramendua endelegatu ezinik.»	(52)
erreparatu ohartu, konturatu	«Damian Arrutik autoaren motorrari eman zion indarra beste ezeri erreparatu gabe .»	(9)
erreten ubide txikia	«Ez du atertu nahi. Igelak ere itoko dituk autopistaren erreten hauetan.»	(18)
eskerga ikaragarri handia	«...Damianek aldarteaz pozteko egin behar izan duen ahalegin eskergari erreparatu ere egin gabe...»	(90)
estreinakoz lehenengoz	«Ba ote norbait munduan minbiziaren albistea estreinakoz entzun eta ikararik egiten ez duenik. »	(10)
finitu amaitu, bukatu	«Non ote denbora finitzearen usaina gardeniarenarekin nahasten duenik.»	(10)
firin zarata oso txikia	«Haizearen firina baino ez da entzun ondorengo segundoetan, tarte handiagoa iruditu duten istant luzeetan.»	(120)
fite berehala, laster	«Argi luzeak eman eta kenduz, eman eta kenduz, esan diote bidetik albo batera alden dadila fite .»	(18)
fits ezer	«Baina ez du fitsik esan.»	(53)
futitu burlatu, trufatu	« Futitzen dela eulien gaiaz, baina ez horrela eulizaleaz.»	(55)
galbahe filtroa, zentsura	«Izugarrikeriak ohituta gauzkala distantziara, telebista eta hedabideetako galbahera .»	(109)
gaurero dagoeneko, jadanik	«Munstroa iristen denean iritsiko da eta orduan ikusiko, ez lehenago. Ala, iritsita dago gaurero .»	(22)
geruza estalkia, kapatxoa	«Baina batere geruzarik gabe agertzen denean, aurrez aurre, ez dagoela zer eginik.»	(109)
goi-arnasa handinahia, aspirazioa	«Sotil-sotila. Batere goi-arnasarik gabekoa. Mundutarra zeharo.»	(22)
golem izaki beldurgarria, munstroa	«...kalean doazen herritarren begi galduek ere nabarituko ote duten pauso bakoitzarekin golem astun bilakatzen ari dela.»	(129)
gutizi nahi bizia, guraria	«...gizon guztiz garbi haien jostailu huts izateaz, gizon haien gutizien gordeleku izateaz.»	(85)
hagitz askoz	«Batean Moskun eta bestean Erroman. Edo hagitz txarragoa, asmatutako lurraldeetan: Comalan edo Macondon.»	(111)
hantuste handiustea, harroa	«Giza gorputza era hartan zatituta ikustea izan zitekeela modu bat edonor betirako umiltzeko. Hantuste irmoenak birrintzeko.»	(65)
higuindu nazkatu	« Higuintzen naute zure euli horiek guztiek.»	(24)
hoben errua, hutsa	«Eta zer, galdetu ei zuen. Hori ez dela inolako hobena .»	(140)
hurrik eman ere ez inondik inora ere ez	«Gizon horiek nortzuk ziren edo nork bidali dituen ez dakit. Hurrik eman ere ez .»	(126)



idor lehorra	«Barnean kotoia, kotoi zuri-zuria, eta kotoian orratz batez josirik, intsektu idor txiki-txiki bat.»	(134)
ifrentzu atzeko aldea	«...anestesistak lasai egoteko esan eta erle bat jarri dio eskuaren ifrentzu gaineko azalean sartuta.»	(163)
iragaiten pasatzen	« Iragaiten utzi diote eta Damianek eskertu egin du...»	(89)
isiotu piztu	«Une hartan itzuli zen argindarra, ordea, eta piztu egin zen norbait sumatzearekin batera isiotzen den argi automatikoa.»	(19)
izkirimiri hitz jokoa,txistea	«Ez didazu izkirimiri a ulertu, Aldaba jauna.»	(15)
juzku iritzia, epaia	«Orduantxe ulertu du Damianek bere lana eta juzkua zein den ikerketarentzat erabakigarria.»	(154)
kapar parasito odol-xurgatzailea	«Memoriako oroitzapenen artean egonen dela helduta beti, kaparra bezala, bakardade eta zurtasun erabateko hartan gertatu zitzaiena.»	(79)
kapusaidun txotoduna	«Hantxe ditu bere gauzak: poltsa bat eta kapusaidun jertsea.»	(60)
kariaz kausaz	«Sudurraren ezkerreko zulotik atera berri zioten endoskopiaoren kariaz zegoen hala.»	(11)
katabide katuen bidea	«Non ote dago hori. Zein ingurutan, zein gatewaytan, zein katabidetan .»	(77)
katramilatu nahasi	«Zer egiten dut nik berriro inorekin katramilatzen , galdetu dio berriro bere buruari Damianek.»	(63)
kitzikatu zirikatu, bizitu	«Dexedrinak bultzatzen duela ohartu da Damian. Kitzikatua dabil eta adimena erne.»	(36)
korrokoi arrain zilar-kolorekoa	«Kartzinoma. Izena ere baduk hori. Ezkataduna gainera, legatzak, lupiak eta korrokoiak bezala.»	(20)
kukutua ezkutatua	«Ezkatuko autoan, tiro egin duen gizonezko kukutua bolantean dela, egin dute alde.»	(121)
laborri beldur handia, izu-ikara	« Laborria eragiten dio Luperengan aurkitu duen senitartekotasunak...»	(91)
lagin erakusteko zatia	«Non duzue mikroskopioa. Laginak behar ditut zati bakoitzetik, esan du gero.»	(49)
lahar arantzadun landarea, sasia	«Kolorgeak margo hartzen du eta lahar artean, arantzak ezkutatu eta masustak bakarrik ikusten dira.»	(123)
leiar beira, kristala	«...euri tantoak Jeep Wrangler beltzaren leiarretan eta gaineko plastikozko estalkian tarrapatatan.»	(9)
lepo kargatu goraino zamatu	«Horixe da gaur eguneko garraioaren giltza: kamioiak, ontziak eta trenak lepo kargatu eta prezioak itxitakoan soilik deskargatzea.»	(105)
lirdinga gai likatsua, lerdea	«Haragi mukitsua. Lirdinga .»	(11)
minbizi kantzerra	«Eta gaitz arinaren lekuan minbizia gainean duela irten da kontsultatik.»	(15)
murritz laburra, urria	«Hala ere, hegaberen gogoeta egin du berriz. Gazteen hiztegi murritzarena ...»	(110)
musu truk dohainik, ordainik gabe	«Denak eman ditut, musu truk .»	(156)
noraeza orientazio eza	«Emakumearengan noraeza sortzen duela ikusi gabe.»	(131)
oldar erakarpena	«Bi hitz horiek esaten ez zuten guztian ezkututzen zela, batez ere, emakumeak Oxford Klubeko sarera eramaten zituen oldarra .»	(151)



opa (izan) desiratu	«...baina bizi-legea dela eta zoriona baizik ez diela opa gaur ezkondu direnei...»	(146)
oren ordua	«Esan berria zioten denboraren azken orena hurbil zeukala.»	(11)
ortzi zeru-sabaia	«Garbi dago ortzia baina haize fin batek kristalezkoak bihurtzen ditu belarri muturrak eta sudurraren punta.»	(77)
osin ur sakoneko lekua	«Izarraizko osin batean, laurogeita sei metroko sakoneran, gorpu baten zatiak aurkitu zituzten joan zen astean...»	(39)
oturuntz otordu handia	«Ez dago oturuntzetarako . Eta sukaldaritzak ustekabeko metaforak ematen dituela pentsatzen aritu da.»	(95)
paratu prestatu, atondu	«Berak paratuko zuela afari goxoa gauza guztiak ekarrita.»	(62)
petik beheko aldetik, azpitik	«Azpian hartu du joan zen ostiralean Urrutikoetxeak egin zion galderak eta ezin du ihes egin pisuaren petik .»	(131)
pitokeria huseria	« Pitokeria batengatik haserretu eta elkarren berri jakin gabe ibili ziren urte batzuetan.»	(69)
pixarra pixka, apurra	«...egun beltzak hobeak dituk horretarako, batez ere euri pixarra baldin bada.»	(82)
pozarren poz-pozik	«Gizon eta emakumeak dira pozarren dantzan.»	(106)
prefosta jakina, noski	«...eta saiatuko dela Gorkak eta Leirek arbolaren baten izena ezagutzen ote duten jakiten, Gernikako haritzarenaz kanpo, prefosta .»	(110)
purrustaka marmarka	«Damian Arruti erantzun gabe geratu da, biraoka eta purrustaka .»	(52)
sasian itsasoan astiro-astiro ibili	«Hobe, beraz, motorrak geratu gabe, tor-tor-tor, sasian ibiltzea.»	(82)
suhi alabaren senarra	«...gaur ezkondu direnei, bere alaba Mirari eta Javier Casadevante suhiari , alegia.»	(146)
tarrapatatan euri zaparradaren zarataz	«euri tantoak Jeep Wrangler beltzaren leiarretan eta gaineko plastikozko estalkian tarrapatatan .»	(9)
tarratada urratua	«Zati guztiak irmoki zeuden paketatuak eta ez ziren asko apurtu hainbeste metrotan erori arren. Tarratada txikiren bat baino ez.»	(42)
trapaila itsaso zakarra edo mugitua	«Baina krabatarako ere ez zagok gozo, trapaila apur bat harrotu duk eta.»	(82)
tupustean ustekabean	«Ahots ia ahaztua, hariaren beste muturrean. Mundu oso bat tupustean berritu dion ahots zorrotzegia.»	(143)
txabusina bata	«Biluzteko eta janzteko txabusina berde bat, atzeko aldetik lotzen den horietakoa.»	(163)
txindurritu ziztada txikiak sentitu	«Eskuak txindurritu zaizkio eta entzumena ahuldu.»	(44)
txopa popa, untziaaren atzealdea	«Jose Ramon Izipzuak motorrak martxan dituen ontzi baten txopatik egin dio diosal urrutitik...»	(77)
xabiroi ezten pozoitsuko arraina	«Olagarroen orde, xabiroiak eztarrian.»	(15)
zantzu seinalea, aztarna	«Gainera, Damianek zantzu arraro bat ere sentitu du.»	(124)
ziega lurpeko kartzela	«Bordeleko kartzelako ziega batean eduki zuten lehenbizi...»	(138)
ziraun narrasti mota bat	«Medikuarengana etortzea erabaki arren, ez zuen pentsatu ere egingo halako ziraun luzerik sartuko ziotenik sudurretik barrura.»	(12)

**zirimola**

zurrunbiloa

«Begira geratu zaio garrari eta keak egiten duen **zirimola** kotoizkoari.»

(20)

zurztasun

gurasorik gabe gelditzea

«Memoriako oroitzapenen artean egonen dela helduta beti, kaparra bezala, bakardade eta **zurztasun** erabateko hartan gertatu zitzaiena.»

(79)